

kuak. Dena den, gotzainek Eliza zabalean beren nazio minorizatuaren alde inoiz gutxitan egin izan duten bezalako gutun honek, estimagarria izanik ere, izan du salatzailearik: *Convèrgencia*-tik hurbilegi ote dabilen iradoki da, eta arazoaren alde soziala urrutiegi ez ote zaion gelditu ere bai. ■ *Joanes Goia.*

## «Enseiucarrean», unibertsitarien aldizkari bat

Azkenean, berri pozgarri bat ere bai: Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura Mintegiak argitaratua, *Enseiucarrean* aldizkariaren lehen zenbakia heldu zaigu. 64 orrialde, 200 pta. prezioa. Kontzeptu serio batekin egina, ez kaskarin eta ez anbizio-tsuegi, egoki. Eskatzeko, edo harpidedun egiteko, hona jo: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Kultura Mintegia.

Ez genuke aldizkari honen sorrera, sortzen ari direnetan beste bat gehiago bezala, pasa nahi. Atentzioa eman nahi genieke irakurleei, berezi-bereziki unibertsitari, proiektu honetan interesa daitezen.

Zer da, zer izan nahi du *Enseiucarrean* aldizkaritxo berriak. Izan, aski bariatua da: pare bat poematxo eta ipuin, itzulpenak (Juan Rulforen kontagai bat, Saussure-ren testu-zati bat), literatura azterketak (Juan Ruiz/Etxepare, balada bat); edo literaturaren historia eta hizkuntzaren teoria pixka bat, nahiago bada; elkarrizketak (antropologia, teatroa), komikiak ohar batzu, ikerketa etimologikoak, etab. Gai desberdinak, alor bakoitzetik pixka bat. Testuak ere laburrak, inoiz ez aspertzeko.

Barietatea eta laburtasuna, halere, ez doaz sakontasunaren kaltetan. Ez naiz ni inor ikerketak epaitzen hasteko, baina artikulatu batzu ez dira bromatakoak. Lan handia ikusten da. Bistan dago, aldizkari serio bat egin nahi dela.

Asmoa, berriz, lehen zenbaki honek erakusten duena (erakus zezakeena) baino zabalagoa da, hots, filologia edo literaturakoak bakarrik ez, baina antropologia, soziologia, filosofia, psikologia, historia, pedagogiako gaiak ere biltzea, «giza zientzia» guztiak alegia.

Errealitate honek amets batzutarako legitimatzen gaitu.

Oso interesgarria ikusten dut proiektu hori eta, kondizio baturekin, inportante eritziko nioke. Funtsean hauexek: ikasle

unibertsitariena bakarrik izatea (nahi denean bestelako edozein gomitatu ezinik gabe), baina unibertsitari guztiena; h.d., egiaz giza zientzietako Fakultate guztietara hedatzea, lankidegoaren aldetik; Zuzendaritza, halere, ekipotxo finko batekin eta leku jakin batean edukitzea eta handik eramatea (hobekienik Deustuan bertan, hor sortu denez gero), proiektuaren koherentzia eta jarraitasuna segurtatzeko. Zaila ez da aldizkariak sortzea; eustea izango da.

Deustuan sortu izana, agian zilegi izango da, problematxo bat izan daitekeela, esatea. Deustuari buruz, ez dakit eritzi ala aurreritzi, berdin zait, baina errezelo batzu egon daitezke: Deustukoek berek Deustuko horma-mugak gainditzen asmatu beharko dute, euskal unibertsitari guztiengana zabaltzeko; besteek, euskaltzaleak Deustuan ere beste edonongoen berdintsuak direla, pentsatu beharko dute, eta lankidetzarako lotsarik ez izan. Euskaltzaleok, inozo izateko eskubiderik ez dugu (ez dugun beste eskubide bat), geure interes partikularren marraskilotan geratzeko ez dugun bezalaxe.

Unibertsitarien aldizkari (orri, paper) mota batzu, nahitaez bezala daude zentru bati lotuagoak, dira partikularragoak, protestatzaile-errebindikatzaile-ezdakitertzatzaileagoak izaten dira eta. Zentruko gorabehera espezifikoek ispilu izan beharra dute. Azterketa-ikerketa-saio tankerako aldizkari batek ez dauka zergatik zentru batera mugatu, *Enseiucarrean* den aldizkaria bezalakoak. Interesa eta lanerako gogoia duten guztiena izan beharko luke.

Pentsatzen hasita, edonongo euskal unibertsitariak baluketela beren giza zientzietako aldizkaria, eta lan serio bat egin ere egiten dutela: aldizkari hori, orduan, ez litzateke izango ikasleek lumak non zorroztu edukitzeko bakarrik inportantea, ezpada baita guztiok zer ikus eta non ikas izateko ere, interes arruntekoa. Aldizkari hori *Enseiucarrean* izan daiteke.

Esan nahi dut, natur zientzietako aldizkari bat —*Elhuyar*— dagoen bezala, giza zientzietako beste bat beharko litzatekeela. Eta hori posible dela, Deustuko unibertsitari-multzo batek erakutsi du. Orain beste unibertsitariak elkartzea falta da, hastapen ez guztiz *debile* honi fortuna hoberenak darraion.

Lehen zenbakiari eman zaion tratamendu grafikoa (letra-masa, orri-konposaketa, aurkibidea bezalatsu) beharbada hobe liteke zerbait, larritzekoa ere ez bait da, «zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen (...) barkhakizun direla».

Ea, ba, Unibertsitateak baino unibertsitariak zerbait hobeto funtzionatzen duten, eta ematen diguten giza zientzietako aldizkari bat, euskarak behar duen bezalakoa. ■ *J. Azurmendi.*